

GENERO PROBLEMATIKAREN HAUSNARKETA ETA AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

ITAIA Emakume Sozialisten Sarea

Gure ponentzia hau militantzia feministan indarrean dauden usteak aztertu, ordenatu eta sakontzeko baliatu nahi dugu; hau da, ziurtzat ematen dugun horretan arrakalak topatzeko. Zehazki, hainbestetan gure burua zeharkatu duten honako kezka hauei heldu nahi diegu, behin betiko erantzunen bila joateko asmorik gabe, baina bidean gure zalantzak ordenatzeko gogoz: zer dauka jopuntuan gure praktika politikoak? Non kokatzen ditugu gaur egungo gizartearekiko haustura puntuak? Zer da irauli nahi duguna? Nola borrokatu? Zapalkuntza honekin bukatzeko langileon programa politikoaren helburuak kokatu eta gure jardun politikoaren nolakotasuna definitzea da ponentzia honen helburu nagusia, hortaz.

BORROKAREN HELBURUEZ

Hausnarketaren abiapuntutzat hartuko dugu *zertarako borrokatzen* dugun galderaren behin behineko erantzun oinarrizko hau, diskurtso feministaren baitan partekatua izan daitekeelakoan: borroka feministaren hautua egin dugu emakumeok *emakume izateagatik agente zapaltzaile ezberdinekiko ditugun egiturazko subordinazio eta gutxiespen egoerak antzeman eta gainditu nahi ditugulako*. Honako adierazpena argigarria zaigu oso, batik bat findu beharreko hainbat elementu mahaigaineratzen dituelako: zergatik da beharrezkoa emakumeek zapalkuntza forma zehatz bat pairatzea? Zertan datza subordinazioak? Zeintzuk dira agente zapaltzaileak? Zer nolako lotura dauka emakumeenganako menderakuntzak gainontzeko zapalkuntzekin? Argi dago, atzeman dezakegunaren atzean baditugula oraindik askatu beharreko zenbait korapilo.

Abiapuntutzat izan dugun baieztapenak sorrarazitako zalantzetatik tiraka garatu dugun proposamena azaltzen saiatuko gara hurrengo lerroetan. Horrela, definizio horrek barnebiltzen dituen elementuak sakontzen dituen ondorengo bereizketa analitiko eta politiko honetaz baliatuko gara: alde batetik, genero zapalkuntzak emakumeok emakume gisa identifikatu eta sozializatuak izateak dakarzkigun dominazio formen egitura sozial, politiko eta ekonomikoari, bai eta berauek zilegiztatu eta erreproduzitzen dituen kultura matxistari erreferentzia egiten die. Bada, genero zapalkuntzaren adierazpenak dira emakume izate hutsagatik gizonen gure gorputzaren gainean duten kontrol eta monopolio legitimoa egikaritzea: kaletik lasai ibiltzen uzten ez digutenean, jai giroaz gozatzea galarazten digutenean edota beraien plazer sexuala beste helbururik ez duten harreman sexualak izatera bultzatzen gaituztenean. Hein berean, genero zapalkuntzaren adierazpenak dira emakume izate hutsagatik gure arrazoimenerako gaitasuna ukatu eta erabakitzeke ahalmena lapurtua zaigunean, zuzenean ala zeharka egikaritzen bada ere: hitzaren monopolioa gizonarena denean, hitz egin nahi baina ausartzen ez garenean, hitz egin eta kontuan hartzen ez gaituztenean...

Bestalde, jakina da genero zapalkuntza pairatzen ditugun bestelako zapalkuntza formekin elkarloturik bizi dela; eta zentzu horretan, egiturazko loturak identifikatu, ulertu eta borrokatzea da gure jardun politikoaren xedea. Gure ustetan, bide horretan barrena urratsak ematea ahalbidetzen digun kontzeptua da genero problematikarena, emakumeonganako zapalkuntza modura kontzeptualizatu dugun horrek bestelako zapalkuntzekin (nazio zapalkuntza, arrazakeria, homofobia, transfobia...) elkarlotuz funtzionatzen duela agerian uzten duelako; genero auzia dominazio-egituraren funtzio estruktural modura, kapitalismoaren egituraketarako beharrezko zapalkuntza modalitate gisa definituz.

Genero problematikak beraz, beste zapalkuntza formekin batera, botere burgesaren artikulazioa osatzen du. Botere modalitate honen oinarrian diruaren metaketak dakarren prozesu sozialen gaineko erabakitze ahalmena dago, hau da, besteen lanaren gaineko aginte gaitasuna eta lan horretatik sorturiko gainbalioaren lapurreta. Honek guztiak esan nahi duena da kolektibitate sozial bat lan prozesuetan murgildua eta menperatua izatera behartua den heinean, beste bat boteretsuago bilakatzen dela lan prozesuak martxan jarritz. Bestela esanda, gizartearen gehiengoak (bizirauteko lan egitera kondenatua den heinean, langile klasea) gutxi batzuentzat lan egin behar duela. Beraz, bi klaseen arteko interesak antagonikoak direla: bere lan egiteko ahalmena besterik ez duen klasea bera menderatzen duen eta gutxi batzuk boteretsuago bihurtzen dituen kate geldiezin batean murgiltzera behartuta dagoelako; gutxiengoaren aberastasunak gehiengoaren miseria baino ez dakarrelako.

Dena dela, egungo sistema osatzen duen dominazioaren estrukturan oinarria ekonomikoa bada ere, hori baino askoz ere konplexuagoa da, dominazioaren egiturak gizartearen zirrikitu guztiak zeharkatzen dituelako, horrela zapalkuntza forma anitzen arteko artikulazioan oinarrituz. Are gehiago, kapitalismoak sistema sozial eta historiko modura aurreko formazio sozialetan aurkitzen ditu bere oinarriak, eta zentzu horretan, berauetan zeuden eta bere helburuari ekarpena egiten dioten praktika sozial, ohitura, uste eta zapalkuntza formak bereganatu ditu, bere beharretara egokituz.

Genero problematika botere burgesaren mantenu eta indartzerako mekanismo gisa ulertzen dugu, beraz. Iraganeko ekoizpen moduetatik hartutako zapalkuntza modalitate desberdinekin egituratzen dena: emakumea azpiratzen duen lan banaketa sexuala, kultura matxista, etab. Iraganeko elementu patriarkal hauek gizarte kapitalistaren parte bihurtu dira aurreko bizi sozial horien forma deuseztatu duen prozesu historiko baten bidez, horregatik, uste dugu patriarkatua ez dela kapitalismoarekin uztartzen den baina autonomoa den sistema bat, nahiz eta iragan horren arrastoak ageri diren menderakuntza burgesari funtzionala zaion zapalkuntza gisa.

Hori horrela, genero zapalkuntzaren mantentzea ausazkoa izatetik urrun, behar-beharrezkoa zaio botere sozialaren jabe den klaseari, eta hori erakutsi du kapitalismoaren hastapenetatik bertatik. Horren adibide dira, besteak beste, sexualitatea eta erreprodukzioaren erregulaziorako mendeetan zehar egindako ahaleginak:

ugalkortasunera ez bideratutako praktika sexualen edota antisorgailuen erabilpenaren kontra indarrean jarritako neurri zigortzaileak, haurdun zeuden emakumeen erregistroak, emakume txiroen talde bortxaketen despenalizazioa....

Laburbilduz, genero problematikaren biziraupenak berebiziko garrantzia du botere sozialaren jabe den klasearentzat, hots, burgesiarentzat. Kapitalaren metaketa gero eta handiagoa izan dadin, beharrezkoa du lan indarraren kostua ahalik eta txikiena izatea eta ekarpen handia egiten dio emakumea subjektu debalatu izateak horretarako: alde batetik, lan indar femeninoaren debaluzioak gainbalio absolutuaren tasa handitzen du, sozialki onartzen den subjektibitate ekonomiko femenino bat sortuz eta bestetik, lan indarraren erreproduzioan zentralak diren etxeko lanak emakumeak dohainik egiteak kapitalismoari horren kostua aurrezten diolako.

Hortaz, esan daiteke, aurreko formazio sozialetan emakumearenganako gutxiespen sozial, politiko eta ekonomikoak gizarte kapitalistan bere lan indarraren debaluzioaren forma konkretua hartu duela, eta hori ezin beharrezkoagoa zaio burgesiari. Are gehiago, kostu ala kostu ekiten dio lan indar debalatu anitzak sortzeari: gazteak, etorkinak, bollerak, transak, marikak, aniztasun funtzionala dutenak... Horrela, alde batetik, langileen arteko mailaketak gauzatzen ditu, elkarren arteko etsaitasuna eta lehia sortuz; eta bestetik, subjektibitate ekonomiko debalutuak indartzen ditu, kolektibo hauen zaugarritasun sozial eta politikoa areagotuz: lan prekarizatueta (feminizatueta) bideratuz, lan-kontratu zaborrak inposatuz, antolatzeke eskubidea urratuz...

Hori gutxi balitz, etsaitasun horrek aukera ematen dio klase menperatzaileari klase batasuna etengabe oztopatzeko eta berau politikoki antolatuta dagoen klase bakarra izateko. Bestela esanda, genero problematikak langileria klasearen baitako botere harremanak sortzen dituen heinean (gizonezko langileei emakumeenganako pribilegioak esleituz), zapalkuntza modalitate hau antolakuntza politikorako zailtasunetan gorpuzten da.

SUBJEKTUEZ ETA ALIANTZEZ

Estrategia politiko ororen helburua da kolektibo sozial bat artikulatzea, subjektu politiko modura eratzea. Era berean, genero problematikaren gaindipenerako borroka hitz egitean, subjektuaren auzia eztabaidagai izan ohi dugu: nor da genero problematikaren kontra borrokatu behar duena? Emakume guztioi berdin eragiten al digu? Zein da gizonaren papera borroka feministan?

Aurreko atalean azaldu dugun moduan, genero problematika botere burgesaren baitako dominaziorako funtzio zehatza da; hau da, Marx-ek adierazten duen bezala, irabazi edo onura gehigarriak gauzatzeko burgesiaren borondateak mantentzen ditu emakumeak lan espezializatueta eta familian betetzen dituen funtzio zehatzetan. Horrek esan nahi duena da, bere oinarrian ekoizpen prozesu kapitalista egonda ere,

gizartearen osotasunean eragiten duten adierazpen kultural, ideologiko eta politikoak barnebiltzen dituela genero problematikak. Horren zuzeneko inplikazioa dugu emakumea bizitzako maila guztietan gutxietsia den subjektu modura eraikia dela: aitortza politikorik gabe, soldataren gaineko kontrolik gabe...

Gauzak horrela, emakumeak emakume izateagatik agente zapaltzaile ezberdinekiko menderakuntza harreman bat badu ere, zapalkuntza horrek ez dauka eragin berdina emakume guztiengan. Izan ere, genero zapalkuntzak klase aldagai ukazina du egungo testuinguruan. Hala, boterearen oinarria diruaren metaketa den heinean, horren jabe diren emakumeek, emakume izateak dakartzan ondorio sozialak neutralizatzeko gaitasuna daukate. Hau da, emakume burgesek genero zapalkuntzaren ondorio kultural edo juridikoak pairatu arren, emakume gisa imposituak zaizkien betebeharreri ihes egin diezaioke diruaren bitartez: seme-alaben zaintzaz edota etxearen mantenuaz arduratuko den emakume langile bat (gehienetan migrantea) kontratatuz, ama izan nahi duten edo ez erabaki eta gauzatuz... Eta are gehiago, azpimarratu beharrekoa da emakume burgesek emakume langilearen zapalkuntzan daukaten erresponzabilitate politikoa, beraien boterea mantentzeko genero zapalkuntzaz baliatzen baitira. Horrez gain, esaterako, euren dominazio bitartekoa den gorputzarekin milaka emakume proletarioren gorputzen gaineko kanonak sortzen dituzte, azken hauen subjektibitatean ondorio konponezinak sortuz; edo beraien amatasun nahimen berekoia dela eta, emakume desjabetuon sabelak alokatzen dituzte, eta horrekin batera gure osasun fisiko eta psikologikoa.

Beraz, gizarte kapitalistan genero problematikak duen forma historiko zehatzetik ondorio politiko hauek atera genitzake: alde batetik, emakume guztiak gutxietsia den kolektibitate sozial baten parte izan arren, antagonikoak diren subjektu politikoak osatzen ditugula. Izan ere, emakume burgesaren izate soziala botere burgesaren funtsa den diruaren metaketaren printzipiotik eratortzen da, genero problematika izanik botere burgesaren egiturari berezkoa zaion zapalkuntza zehatzetako bat. Hori horrela, emakume burgesak bere klase posizioa mantentzeko, genero problematika erreproduzitzen eta indartzen duten prozesu sozialen beharra du: soldata arrakala mantentzearen beharra, emakume etorkinak lanpostu zehatzetara bideratzearen beharra...

Bestetik, dominazio kapitalistaren baitako kokapen sozialak kolektibitate horren borondate politikoa baldintzatzen du: hau da, besteentzako lan egin behar izatea, ala besteen lanaz jabetzea. Horregatik, esan daiteke emakume burgesaren borondate politikoa bere botere posizioa indarrean mantentzean oinarritzen dela, hots, gizarte kapitalistaren biziraupenean. Horren isla dira emakume langileek aurrera eramandako borrokekiko hartzen duten posizionamendua: historikoki bozka eskubide unibertsalaren aurrean bozka eskubide zentsitarioaren alde altxatuz, amatasun subrogatuaren defentsa eginez... prest al daude burgesiako kide diren emakumeak emakume langileon gaineko biolentzia sistematikoaren gainean eraiki den ondare ekonomikoari uko egin eta errealki proletalgoaren bizi baldintza material, sozial eta kulturalen onura ekarriko duten borroka prozesuak aurrera eramateko?

Bestalde, emakumearen menpekotasun egoera agente zapaltzaile ezberdinek egikaritzen dute. Eskala sozialean modu koordinatuan operatzen duen agente zapaltzaile orokorra burgesia da eta honek genero

zapalkuntza gauzatzeko figura kolaboratzaile ezberdinak sortzen ditu. Hauen artean, nagusiena eta forma anitzetan ematen dena, gizon langileak betetzen du: bortxatzailearen forman, gure hitza isilarazten duen matxitoaren forman, senar autoritarioaren forman... Azpimarratu behar da horrela jarduten duen gizonak, emakumea(k) erasotzeaz gain langileriaren antolaketa politikoa erasotzen dutela, eta beraz, irmoki borrokatu beharreko figura zapaltzailea dela.

Ondorioz, zapalkuntzaren erroa zirriborratuta eta hau jasaten duen subjektua identifikatuta, auzi organizatiboari erreparatu behar diogu: hau da, nork dauka honekin bukatzeko potentzialitatea? Zein da borroka subjektua, beraz? Gure ustez, aurretik esan bezala, boterearen modalitate burgesa ekoiztera kondenatutako subjektua langile klasea da, bere baitan zapalkuntza forma ezberdinak pairatzen dituzten subjektibitateak barnebiltzen dituena. Hori horrela, proletalgora kokatzen dugu botere forma ororen gaindipena gauzatu dezakeen subjektu bakar bezala, beste batzuen boterea ekoiztera kondenatuta dagoen heinean, bere baitako antolakuntzaren bitartez bere kontrako botere hori ekoizteari utz diezaiokeelako. Langileria bere baitan antolatzeak opresio modalitate ororen kontrako borroka martxan jartzea esan nahi du; horregatik, burgesia osoa genero zapalkuntzaren kausa modura konbatitzen dugun era barean, berau egikaritzen duten klase kolaboratzaile guztiak borrokatu behar dira (bortxatzailea, senar autoritarioa, erasotzaile sexuala...).

BOTERE PROPIOAREN ERAIKUNTZAZ, ANTOLAKUNTZAZ ETA ESTRATEGIAZ

Genero problematikak botere burgesaren erreproduzioan betetzen duen paperaren jakitun, genero zapalkuntza modu integralean eta botere burgesaren aurkakotasunean borrokatzea ezinbestekoa zaigu. Botere burgesaren aurkakotasunean diogunean zera esan nahi dugu: genero zapalkuntza gainditzeko garatzen dugun borroka bera langile boterea eskuratzen joateko prozesua dela. Horretarako, gure bizitzen gainean erabakitzeke daukan boterea murriztu behar diogu burgesiari, gure indarrak garatzen goazen heinean: eguneroko borroken bidez botere kuotak eskuratzen joan behar dugu, horrela, indar korrelazioa pixkanaka gure alde kokatu eta burgesiak bere boterea mantentzeko duen dominazio eraikuntza iraultzera heldu arte. Horretarako, ez da nahikoa estatu burgesari egoera alda dezan eskatzearekin. Genero zapalkuntzarekin behin betiko bukatu nahi baldin badugu guri dagokigu horretarako gaitasunak eskuratzen joan eta hauek biderkatzeko borroka estrategia eraginkor bat martxan jartzea.

Emakumea genero zapalkuntzatik askatzeko modu bakarra kapitalismoarekin bukatzea dela argi dago edo, beste era batera esanda, kapitalismoa emakumearen emantzipaziorako muga estrukturala dela. Ez dezagun honekin ulertu, ordea, emakumeen bizi baldintzak ezin direnik hobetu kapitalismoa suntsitu artean edo, sarritan leporatu dena: “komunismoa lortu artean ezin diogula genero zapalkuntzari aurre egin”. Genero problematika eta genero zapalkuntza kontzeptuen bereizketa analitikoak, izan ere, momentuko eginbeharren eta azken helburuaren arteko bereizketa egitea ahalbidetzen digu: genero problematika botere burgesaren funtzio gisara ulertuz eta botere modalitate honekin bukatu arte gainditu ezingo den arren, genero

zapalkuntza bezala agertzen zaizkigun formak borrokatu ditzakegu, emakume langileon bizi baldintzak hobetuz, garaipenen bitartez hauen heziketa politikoa garatuz, eta botere burgesa pixkanaka arrakalatzea lortuz.

Hartu dezagun erreproduzio biologikoaren adibidea esandakoa ulertzera begira: erreproduzio biologikoaren gaineko kontrola gure erreproduzioa kapitalari beharrezko zaizkion langileak sortzean oinarritzen den bitartean ez da gure esku egongo, naiz eta “nahimen indibidual” gisa mozorrotu guraso izateko aukera. Historian zehar egon diren sexualitatea eta erreproduzioa erregulatzen mekanismo ezberdinek argi erakusten digute “borondate indibidual” horren atzean “nahi sozial” bat dagoela, hain zuzen ere, klase dominatzailearen interes soziala. Honen gaineko kontrola, kapitalismoa gainditu arte, lortu ezingo dugun arren, erreproduzio baldintza hobek borrokatu ditzakegu: abortatzeko eskubidea, osasun erreproduktibo doakoa bermatzea... Beste era batera esanda, prozesu sozialen gaineko erabakimen ahalmena duenak, hots, botere politikoa duenak, erregulatuko du - interesatzen zaionaren arabera- gure erreproduzioa eta kapitalaren beharren arabera erregulatua izatek, gizartearen beharren arabera antolatua izatera pasatzea litzateke gure erreproduzio biologikoaren gaineko kontrola eskuratzea. Eta estrategia proletarioa dugu horren berme bakarra.

Botere politikoa eskuratzeaz ari garenean, aldiz, ez gabilta estatu aparatuetan emakumeak egotearen ideiaz. Izan ere, estatu burgesaren aparatuen baitan langileok izan dezakegun boterea mugatua izateaz gainera, lege bidezko erreformak proposatzera mugatzen da. Proposatzen diogu, erreformak onartzeko gaitasuna oso murrizta delako joko zelai instituzionalean bertan ere. Burgesiak klase ertainari bizi baldintza hobeko batzuekin batera instituzioetan parte-hartze politiko legala “onartzea”, bere klase interes propioei uko egin diezaion kontzesio bat besterik ez da, inolaz ere, egiturazko aldaketarik egitea ahalbidetzeko aukera.

Hala ere, erreformen bidezko aldaketa politiko baten posibilitatean sartu baino, eztabaida “erreformak norentzat eta zertarako?” galderara bideratzea egokiago deritzogu. Izan ere, erreformek indar sozialista bat artikulatzeko balio dezakete, bizitzako esparru desberdinetan burgesiarekiko menpekotasuna murriztuz botere propioa egituratzeko. Alta, erreformak lortzeko borroka erreformismoarekin desberdindu beharra dago. Azken hau, legezko hobekuntzen bitartez bidezkoa den sistema bat posible dela sinestaraztea, langileak inpotenziara kondenatzeko burgesiaren tresna bat besterik ez da. Izan ere, burgesiak momentu puntualetan langileentzat hobekuntzak egin baditzake ere, historiak ongi erakutsi duen moduan, langile sektore batzuei ematen diena beste batzuei kentzen die ondoren, euren artean banantzea lortuz eta interes desberdinak dituztela sinestaraziz. Erreformak, beraz, gure iritziz, langileen egoeraren hobekuntzak erdiesteko erauzi behar zaizkio burgesiari, hobekuntza hauen bitartez borrokarekin jarraitu ahal izateko, klase borrokan aurrera pausuak emanez. Botere politikoaren bitartez ematen den aldaketa historikoaren oinarria, ematen diren aldaketa kuantitatiboak aldaketa kualitatibo bilakatzean datza eta erreformismoaren bidea hautatzen dutenek ez dute azken aldaketa hau bilatzen.

Hortaz, galderara bueltatuz, balio diguten erreformek emakume langilearen bizimodua aldatzeko gaitasuna izan behar dute, eta horretarako, legezko aldaketak, hasiera puntu egokia jarri badezakete ere, ez dira aski. Hartu dezagun abortuaren auzia adibide modura: Abortuaren auzia ezin dugu honen legeztapenean kokatu, emakume langileontzat auzia emakume guztiek abortatzeko baliabide berdinak izatean kokatzen baita. Abortua legala izateak ez digu horren aukera errealerako bermerik ematen. Ikuspegi proletario batetik abortu eskubidea eskuratzea, honen legezkatze hutsa baino (eskubide formala), abortatzeko baldintza material eta sozialak lortzea (eskubide materiala) izango da, abortua guztiontzako eskuragarria eta guztiz doakoa izatea lortu arte.

Horrez gain, genero zapalkuntza berau pairatzen dugun forma bakoitzean aztertu eta egoera bakoitza borrokatzeko helburu konkrituak definitzea lehentasunezko auzia dugu. Izan ere, askotan aldarrikapen dinamiketan sartzen gara, gehienetan hauek errealizatzeko inongo antolakuntza proposamenik izan gabe. Horrela, alde batetik, aldarrikatzen duguna lortzeko baliabiderik ezean frustrazioan erortzeko arriskua handia da eta, bestetik, aldarrikapenak oso modu abstraktuan planteatzeko inertzia gure kontra etor liteke. Izan ere, aldarrikapenak egiteko orduan emakume guztion artean interes konpartituak eta ahizpatasun sentimendu bat garatzeko balio duten ideia orokorrez baliatzeak, jendearengan iritzi positiboa sortu badezake ere, ez digute gure botere politikoa eskuratzeko inongo gaitasunik ematen. Kontrara, emakume guztiok izan ditzakegun interes konpartituak itxurazkoak baino ez direnez, gure interes propioen baitan jardutea eragotzi dezake. “Nire gorputza, nire erabakia!” lelopean emakume guztiok batu gaitezke, baina errealki emakume langileon gorputzaren gainean norberak erabakitzeak baldintza materialak inplikatzeko dituzte, hau da, langileon mesedetara antolaturiko gizarte ereduak izateak. Hori noski, klase menperatzailearen interesen aurkakoa bilakatzen da, baita emakume burgesena ere.

Gure ustez, beraz, emakume langileok botere politikoa eskuratzea ez da legalki aurrera eraman dezakegun jardura politikoaren emaitza, ez da estatu burgesa bere horretan utziz “feminizatzea”, ez da klase ertaineko emakumeen posizio soziala hobetzera mugatzen den jardun politikoaren ondorio, eta ez da inolaz ere desagertzeko zorian dagoen ongizate estatuan sakontzea. Erreformen aldarriak ez diren balio erreforma horiek emakume guztiontzat lortezinak badira eta beraz, emakume proletarioen interesak bermatuko dituen antolakuntza propioa garatzea besterik ez daukagu. Subjektu honen bizi baldintzak eta egoera aldatuko dituen bakarra zapalkuntzek funtziorik beteko ez duten gizarte baten eraikuntza baita, klaserik gabeko gizarteak.

Garatu beharreko programa politikoak, esaten gabiltzan bezala, emakume izateagatik pairatzen dugun zapalkuntza bere modalitate ezberdinetan borrokatzea izan behar du helburu eta langile klaseko emakumeon behar materialak izan behar dituzte oinarri. Emakume langileon egoera soldatapeko lanarekiko dependentzia absolutu batek eta babesgabetasun egoera batek ezaugarritzen dituela jakitun, dependentzia zein segurtasun falta hori gainditzera bideratu behar dugu gure jarduna. Horretarako, alde batetik, genero zapalkuntza ongi identifikatzea beharrezkoa da. Horrela, esparru guztietan ematen den lan banaketa sexualaren funtzioa

atzeman eta blokeatzea oinarri izanik, gure lanaren eta, ondorioz, bizitzaren gaineko aginte gaitasuna garatuko duten borroka prozesuak abiarazi behar ditugu.

Hala, indarra metatu eta ongi artikulatzea garrantzitsua izango da, lortutako indarra airean lurrundu ez dadin eta boterea hartze prozesuan gaitasun handiagoak lortzeko balio diezagun. Burgesia garaitzea ezinbestekoa da, bera baita esplotazio eta zapalkuntza egoera etengabe batera kondenatzen gaituena eta gure bizitzak ziurgabetasun izugarria kondenatzen dituen. Horregatik, gure proiektu estrategikoak azalean agertzen den zapalkuntza bakoitzerako estrategia partzialak planteatzea baino burgesiaren botere errearen dimentsio guztien kontrako izan behar du. Feminismoa langile klasearen ezinbesteko borroka izan behar da, bere interes propioen baitan artikulatuz. Egia da, segurtasun faltak, hala nola antolakuntza eraginkor baten faltak, zein burgesiaren botere erreala atzematuko ezintasunak, guzti hau nola egingo dugunaren gaineko zalantzak sor ditzakeela, edo egungo testuinguruan oso zaila suertatzen dela erreformak eskatzeko aldarrietatik at zerbait lortzeko gaitasun propioan sinestea. Horregatik da beharrezkoa momentuan momentuko indar errealak neurtu eta borroka atsedetik gabeko bide luzea bailitzan planteatzen jakitea: momentuan dauzkagun indarrekin lorgarriak diren borrokek bideratu eta garaipen bakoitzarekin indar gehiago metatzea.

Emakumeon bizitzetan hobekuntza errealak lortzeko ekinbideak pentsatu behar ditugu, kalkulu politiko zehatzak egin eta lortutakoak defenditzeko antolakuntza eraginkorretan asmatu. Ematen dugun pauso bakoitzak, egindako lorpen bakoitzak, ondorengo bat izan behar du jarraibide, horrela, lortutakoak defendatuz helburu estrategikora hurbiltzen joan behar dugu. Dauzkagun indar errealek tratatu txarrak jasotzen dituen emakume bakoitzari bere infernu-etxetik atera ahal izateko baliabide materialak eskaintzeko balio badu gaur, bihar tratatu txarrak egiten dituen senarra etxetik bota eta emakumea bere etxean gelditu dadin balio behar du. Agerikoa da, bigarrenak langileon artean artikulatutako indar handiagoa eskatzen duela lehenengo pausuak baino. Gure borroka norabide zuzenean definituz gero indarrak handitu ahala burgesia gero eta eskala handiagoan eta borroka handiagoen bidez konfrontatu ahal izango dugu. Emakume langileok indartzeko baldintzak beraz, bi norabide ditu: burgesiari gure gaineko kontrola murrizten joatea alde batetik, eta antolakuntza eraginkorraren bidez egiten ari garenak bizi baldintzak hobetzeko balio duela demostratzea bestetik, hots, langileon independentzia organizatiboa genero zapalkuntzarekin amaitzeko baldintza ezinbestekoa dela azalratzea.

Egoera lazarrietan dauden emakumeen bizitzek menpeko jarraituko dute hortik askatzeko proposamen errealik egon ezean: lan baldintza krudelak, enpresaburuen forma ezberdinetako manipulazioak... Borrokek ez dira propagandarako bitarteko gisa erabili behar, borrokek helburu konkretuak lortzeko aktibatu behar dira, gure indarretan sinesteko balio behar dute: modu antolatuan oinarritzko beharrezko kolektibizazioak edo okupazio antolatuak, esaterako, soldaterekiko dugun menpekotasuna murrizten lagun diezaguke, edo sexuaren araberakoa ez den etxeko lanen banaketa antolatu batek lan karga kendu diezaguke, enpresetan ematen den biolentziaren aurrean erantzuteko antolakuntza eraginkor batek, besteak beste, zaugarritasun eta inpunitate egoeratik aska gaitzake.

AURRERA BEGIRAKO ERRONKEZ

Genero zapalkuntza agenda politikoaren lehen lerroan kokatzeko bidean dago, manifestazio andana egiten dira eraso sexistak salatzeke, milaka pertsona batzen dira Martxoak 8 bezalako egunetan, jardunaldi feministak lepo betetzen dira... Kuantitatiboki indar handia dagoela dirudi, gaiak kaleetan, taberna zuloetan, unibertsitateetan presentzia izugarria hartu du eta oraindik gehiago izan dezake. Baina indar guzti hori emakume langileen bizi baldintzak errotik aldatuko dituen proposamen baten baitan antolatzeke gabezia nabaria dago. Kaleetan pilatzen den indar guzti hori salaketa huts bat izatetik borroka prozesu erreal baten lekuko bihurtuko bagenu, bihar agian, egoera baikorrago batean aurkituko ginatke. Egin daitekeela jakin badakigunez, egungo oztopo eta aukerak mahai-gainean jarririk, hona hemen borroka feminista proletarioaren aurrera begirako zenbait erronka:

1- Aurreko ziklo politikoan hainbeste egonkortu zen **eredu aktibista eta aldarrikapen abstraktuen kulturatik, langile klasearen interesak muturreraino babestuko dituen antolakuntza eredu baten aldeko apustura salto egin behar dugu**, genero zapalkuntzaren aurkako borrokan eman beharreko aurrerapauso modura. Horretarako, hurrengo hamarkadetarako **eginbeharra emakume langileen bizitzak aldatzeke borroka prozesu zehatzak martxan jartzea** da; estrategia eta norabide argien baitan errealak izango diren indarrak metatzea ahalbidetuko duena.

2- Hortaz, gure helburuak eskuratzeko antolakuntza eta mobilizazio ereduaren inguruan hausnartzea dagokigu: **langileria interes berdinen baitan artikulatzeko mobilizatu behar dugu, salaketa konkretuen eta borroka konkretuen baitan**. Hau da, mobilizazioa salaketan soilik oinarritu beharrean, antolakuntza diziplinatu baten baitan lortu nahi dugun hori gure kabuz eraikitzen joateko modua erdietsi behar dugu. Salaketa bidezko mobilizazioa, gure helburuak estatu burgesaren baitan ezinezkoak direla azaleratzeko, hortaz, langileriaren antolakuntzaren premia mahaigaineratzeko eta borroka gaitasunak irabazteke balio diguten aldaketa legalak lortzeke erabili behar dugu. Era berean, handitzen doazen gaitasun eta indar horiek, lanaren banaketa planifikatu baten baitan mobilizatu behar ditugu biderkatu daitezen eta gure botere propioa eraiki dezagun. Azken finean, salatzen dugun hori errealki lortzeke boterea garatu behar dugu, eta horretarako, iritzia forma abstraktuan mobilizatu beharrean, gaitasunak dira mobilizatu behar ditugunak.

3- Gauzak horrela, **Feminismoa** emakumeon borroka fronte gisa sozializatetik **langileria osoaren ezinbesteko borroka gisa kokatzea lehentasunezko eginbeharra da**. Izan ere, emakume guztion batasun irudi bat sortu eta gizonezkoak hortik kanpo utzi izanak ondorio kaltegarriak ditu emakume langileen askapen prozesuan: alde batetik, emakumeok gure militantzia esparru bakar gisa feminismoa kokatzea ekarri du, emakumeok gaitasun politiko integralak eskuratzeko zailtasunak ezarriz eta, bestalde, gizonezkoek genero zapalkuntza gainditzeko paper aktiboa izatea zaildu du, zapalkuntzaren gordintasunaren analisisa zein hau gainditzeko afera soilik guregan delegatuz. Horregatik, genero problematika klase boterearen funtzio bezala ulertzeak auzia proletariotza osoaren ardura gisa planteatzeko aukera ematen digu.

4- Azken hamarkadetan ordura arte ikusezin ziruditen baina emakume langileen bizitza goitik behera

arautzen zuten arazo eta problematika ugariaren ikusgarritasuna lortu izana aurrerapauso izugarria da. Hala ere, azalekoa den horretara mugatzen gara sarri, emakume proletarizatuenen arazoak kontuan hartu gabe edo bigarren plano batean kokatuz: prostituzioaren auzia lantzerakoan esklabutza sexualera kondenatutako milaka emakumeren egoera problematizatu beharrean, aldarrria honetan borondate propioz jarduten dutenen erabakian kokatzerakoan, azken hauek denok dakigun bezala, gutxiengoa izanik ere; edo enpresetako goi postuetarako sarbidea zailago duten emakumeen egoerari, hauen lantokiak garbitzen dituzten emakumeen lan baldintza tamalgarriei baino oihartzun gehiago ematerakoan; edota biolentzia matxista jarrera kontuetara mugatzean, hau areagotzen duten testuinguruak problematizatu orde... **Emakume langileek egunero euren azalean bizi dituzten arazo erreal guzti hauek ikustarazi eta hauen beharrianak lehen lerroan jarriko dituen antolakuntza eredu baten premia nabaria da.** Beharrezkoa da ikusgarria den horretatik haratago joan eta ezkutuan dagoena begiztatu eta azaleratzea: auzia partzialtasunetik lantzeak soilik arazoa formaz aldatzea ekarriko baitu, eta ez horren gaindipena.

5- Teoria politikoaren eraikuntza propioa ezinbestekoa da horretarako, **emakume langileen menderakuntza egoera ulertzeko eta honi aterabidea emateko.** Beraz, orokorrean proletariotzak eta, kasu honetan, emakume langileok pairatzen ditugun injustiziak gainditzeko prozesuaren momentu bat da teoria, klase gizarteak iraun artean berebiziko papera jokatzen duena, hots, prozesu iraultzailean etengabekoa dena. Horregatik, ezin dugu teorizismoan jausi, hau da, jakintzagatiko jakintzan, horrek, ideologiak merkantzia bilakatzen baititu. Langileontzat teoria gure izatea iraultzera bidean dugun behar bat da, hau da, guk teoriaren ezinbestekotasuna daukagu, gure izate historikoa, hots, errealitate sozialean dugun posizio objektiboa ezagutu eta hori gainditzeko estrategia eraginkorrena garatzeko.

6- Auzia ez da kokatu behar eman beharreko aldaketa kulturala edo materiala den horretan. Aldaketa kulturala ez da ideologia bidez edo jendartearengan modu indibidualean eraginez gauzatzen, aldaketa kulturalak ezibestean gizartearen antolaketan eraldaketa bat suposatzen duenez, oinarri materiala dauka. Bestalde, aldaketa kulturala izateko kolektiboa izan behar duela argi dago, eta auzia modu horretan planteatu behar da. Horrek, hala ere, ez du norbanakoaren ardura politikoa ukatzen, izan ere, aldaketa forma indibidualeko deseraikuntza pertsonalean oinarritzen ez den arren, norbere izatea aldatzea beharrezkoa baita aldaketa kultural bat gauza dezagun. Hau da, **pertsonak objektuak balira bezala eraikitzen dituen errealitate kapitalistan proletariotzaren interesei erantzuten dien arau sozialek oinarritzen duten kultura kolektiboa sortu behar dugu, elkartasunean eta zaintzan oinarritutakoa.** Kultura hau aldatu ahal izateko, oinarri material-organizatibo propioak dituen kultura berri bat eratzen joatea besterik ez dago. Ez dago jendartearen buruetan sartzeko modurik gizarte eredu berri baten proposamen errealizatuarekin ez bada, burgesiari gure bizitzako esparru guztien gaineko boterea eskuetatik erauzi eta lortutakoak defendatzeko antolakuntza forma eraginkor batekin ez bada.